

# URTEKO MEMORIA 2016



## EDUKIAK

03 Zuzendari Nagusiaren mezua

04 2016.urteko memoria zifratu

06 Hazkunde globala

08 Mugarri garrantzitsuak

11 Marka

14 Erantzukizun Sozial Korporatiboa

# Irizar Taldeko Zuzendari Nagusiaren mezua



Gure estrategia hedatzen jarraitzen dugu, oinarri nagusitzat hartuta gure marka indartzea, Irizar markako produktu integralak garatzeko teknologia gehituz, bai errekuntza motorrekoetan, Premium hiriarteko segmenturako, bai hiriarteko autokar hibrido zein autobus %100 elektrikoetarako.

Gaur egun, gure taldea orain dela hamarkada batekoa ez bezalakoa da erabat. Antzinako Irizar, autokarretarako karrozerietan erreferentzia zena, bilakatu egin da mundu osoan indartsu den marka baterantz, teknologia propioa gama altuko autokar eta autobusen fabrikazioan erreferentzia bihurtu arte. Hori guztia posible izan da apustu egin delako dibertsifikazio industrialaren eta teknologia propioaren alde, ikerketaren, garapenaren eta talentua erakartzearen alde. Urteotan egindakoz harro gaude, eta gure estrategiak eta misioak makatzen duten bide horretan jarraitzen dugu.

Berrikuntza erritmo handia ezartzen jarraitzen dugu, eta 2016. urtean berri ere ibilgailu propioen eskaintza handitu dugu, Irizar i6S modelo berria merkaturatuta, 2015ean plazaratu genuen Irizar i8ak abiarazitako bideari jarraipena emateko.

Autokar horrek Irizar pb modelo ordeztu du Europako merkatuetan, haren teknologia nabarmen gaituta, eta, gainera, diseinu garbi eta eder batekin, eta senide zaharrek hasitako lerro berriekin koherente.

2016an, halaber, teknologia hibridoa duten i3 eta i4 modeloak aurkeztu ditugu merkaturatuta. II. klaseko Irizar i4 modelo hibridoa teknologia horrekin maletategia duen distantzia laburretarako autokar bakarra da, teknologia hori baita egokiena hiritik gertuko inguruneetarako.

Ormaiztegiko planta matrizea, beste urte batez, berriro hazi da, eta Taldeko liderra da, 1.300 unitate baino gehiagoko produkzio bolumenarekin; baina 2016an gehien nabarmentzen dena da Mexikoko plantaren hazkunde izugarria, batez ere gure ikur nagusia den Irizar i8 modeloaren produkzioagatik, horri esker, historian lehen aldiz, 1.000 unitateko produkzioa gaituta baitugu.

Azken bi urteotan 200 pertsona gehitu ditugu modu egonkorrean Irizar S. Coop.en, horietatik heren bat kualifikazio altukoak, gure ahalmen teknologikoa eta I+Gkoa handitzeko. Dagoeneko ia 800 lagun gara enpresa matrizean.

Autobus elektrikoek jarduerari dagokionez, konpainia berri bat jaio da Taldearen barruan: Irizar e-mobility. Bere sorrera ilusionagarria da, itxaropen handiak baititugu negozio berrirako. Irizar autobus elektrikoek familia hazi egin da 2016an, 18 m-ko modelo artikulatuarekin, zeina 2017 honetan zehar bi bertsioetan garatuko den. Taldearen lehen BRTak (Bus Rapid Transit) proba faseak egin zituen, 2016an seriean fabrikatzen hasi aurretik.

Horrekin guztiarekin, produktu eta soluzio teknologikoen gama zabala dugu dagoeneko, gure eskaintzan autobus %100 elektrikoak sartuta, baita teknologia hibridokoak ere, hiri barruan eta hiri artean zerbitzuak ematen dituzten II klaseko autokarrentzat, autobus eta autokar konbentzionalak aparte. Hori horrela, beraz, bidaiarientzako garraio publikoko segmentu guztiei erantzun diezaiekegu, bai garraio diskrezionalen bai garraio publikoan, hiri barrukoan, hiriartekoan zein ibilbide luzeak egiteko, eta mugikortasun iraunkorren sektorean liderrak izan.

Gainera, abangoardiako teknologiak jartzen ditugu bezeroen eta hirien esku, ongi frogatuta eta kontrastatuta, baita ere zerbitzu pertsonalizatuak, kudeaketa elektronikoko integrala, Irizar konektibitatea, giltza eskura erako soluzioak, eta premia guztietarako solaskide bakar izatearen onura.

Horrenbestez, gure sendotasun eta hazkunde bideari jarraitzen diogu, bezeroekin eta gizartearekin konprometituta dauden pertsonekin, gaurko munduaren funtsezko alderdiei gero eta balio erantsi handiagoa emateko: segurtasuna, teknologia, konforta eta iraunkortasuna.

*José Manuel Orcasitas*  
Irizar Taldeko zuzendari nagusia



# 2016. URTEKO MEMORIA ZIFRATAN

New Visitor Returning Visitor




## Sortutako enplegua

Pertsona kopurua

4

URTEKO MEMORIA 2016



Irizar Taldea hazi egin da berriz eta 580 milioi euroko fakturazioarekin itxi du 2016. urtea


Ormaiztegiko Irizarko lantegi nagusia da, Mexikokoarekin batera, berriz ere taldearen hazkundera tiraka ari dena. Irizar Ormaiztegiaren fakturazioa berriz ere Taldekoaren %50 izatera iritsi da, bere produktuen balio erantsia hazi egin baita.

Hazkunderaren giltza produktu propioen hazkunderaren estrategia egonkorta izana da, autokar integralak dagoeneko enpresa matrizearen autokar produkzioaren %25 baitira.

Unitateei dagokienez, talde osoan "Premium" autokarren 2.835 unitate egin ditugu, horietatik 1.332, totalaren %47, Ormaiztegiko pro-

## Salmentak

Mila euro




dukzioako izanik, 1.332 unitate horietatik 330 Irizar markako autokar integralak dira.

Ekoizpen osotik, 708 unitate etxeko merkatuan entregatu dira (ia totalaren %25, eta Ormaiztegi fabrikatutakoen %50), eta horrek errekor historiko berria ekarri du merkatu horretan.

Espainiako hiriarteko autokarren merkatua hazi egin da berriz, kopuru historikoetara iritsi da, eta azken hiru urteetan suspertzen ari da, aurreko bost urteetan izandako zenbaki negatiboak atzean utzita. Irizar markaren merkatu kuota Espainian %40tik gora dago, eta, beraz, lider posizioa berresten du autokarren segmentuko Premium arloan.

## Aktiboak

Mila euro




Azpimarratu behar da Estatu Batuetako merkatuan saltzen hasi garela, eta, i6 modelo integralak bertan izan duen harrera bikainaren ondorioz, merkatu horretarako aurreikuspenak benetan onak dira.

Halaber, Italia, Portugal eta Mexikon ere aurkeztu dira modelo integralak, eta, 2017rako gaur egungo eskaera zorroaren arabera, aurreikuspenak ezin hobekak dira.

Aipamena merezi duen beste arlo bat produktuen balio erantsiaren hazkundera da, azken urteetan Irizarrek martxan duen marka estratejiaren ondorioz. Berrikuntza eta teknologia gero eta faktore erabakigarriagoak dira Taldearen estrategian eta eguneroko zereginetan.

## Fondo propioak

Mila euro



Kualifikazio altuko pertsonen jarraitzen dute Irizarren sartzen gure I+G programak gauzatzeko, bai autokar integraletan bai elektromugikortasun negozio lerro berrian.

Atzerriko lantegiaren fakturazioa fakturazio osoaren %30 izan da ekitaldi honetan. Gainerako enpresek ekarri dute gainerako % 20a..

Enplegua sortzeari dagokionez, azken bi urtean 200 lagun sartu dira modu egonkorrean Irizar S. Coop.en, horietatik heren bat kualifikazio altukoak, goi mailako lizentziatuak, gure ahalmen teknologikoa eta I+Gkoa handitzeko; ondorioz, enpresa matrizean dagoeneko ia 800 lagun gara.

5

URTEKO MEMORIA 2016



# Hazkunde globala

## Autokar enpresak



6

URTEKO MEMORIA 2016

### Irizar Mexiko

Mexikoko plantaren hazkunda nabarmendu behar da, bertan 1.000 autokar fabrikatu baitira. Bolumenari dagokionez, marka historikoa da Taldearentzat, hain garrantzitsua den herrialde horretan. Mexiko, berriz ere, munduko merkaturik handiena da Taldearentzat.

18a gure produktuen artean gama altuenekoa da, eta modeloak izan dituen harrera eta eskaera paregabeak eta han fabrikatzen hasteak errealitate bihurtu dute herrialde horretako bolumenean halako jauzia.



### Irizar Brasil

Brasilen gure sektoreak krisi sakonean jarraitzen duenez, herrialdearen alde egin dugun apustuari eusten diogun arren, barne egoera aldatzen ez den bitartean, Hego Amerikako herrialdeetara, Australiara eta Hegoafrikara gehiago esportatzeko estrategian jarraitzen dugu.

Esportazioen helmugako herrialde nagusiak Australia, Txile eta Peru dira oraindik ere.

### Irizar Maroko



### Taldeko gainerako enpresak

Horien guztien portaera autokarren portaeraren antzekoa izan da eta, ondorioz, Taldearen fakturazio osoan duten partaidetza kuota mantentzen dute.

2016. urtean aipagarriena da Irizar e-mobility konpainia berria sortu izana. Bere jardura elektromugikortasuneko soluzio integralak eskaintzea da, bai ibilgailuetarako, bai hirietarako osagai eta sistemetarako. Adunan kokatu da (Gipuzkoa), eta plantak 18.000 -ko azalera estalia du 37.000 -ko lursail batean.

Taldeak dagoeneko hamabi konpainia ditu Espainia, Maroko, Brasil, Mexiko, Hegoafrika eta USAn produzitzen, eta horiei I+Gko Zentroa gehitu behar zaie, Taldearen produktu eta sistemen ikerketa plikatua eta garapen teknologikoa lantzeko helburuarekin.



7

URTEKO MEMORIA 2016

Marokon produkzio marka hautsi da berriz ere 2016an. Bi arrazoi daude horretarako: herrialdeko luxuzko merkaturari erantzutea, eta Irizar Ormaiztegiarekin lankidetzan aritzea, Europako merkaturarako Century modeloa fabrikatzen.

Irizar Marokok bere hazkunda sendotzen jarraitzen du Marokoko merkaturan, han lider eztabaidaezina baita luxuzko autokarren segmentuan, %100 inguruko merkatu kuotaekin.

lazo abuztuan, instalazioak 3.000 m<sup>2</sup> baino gehiago handitzeko lanak bukatu ziren, 20.000 m<sup>2</sup>-raino, Irizarren azken belaunaldiko konformagailuak hartzeko.





# Mugarri garrantzitsuak

## Irizar i6Sa merkaturatzea



2015ean Irizar i8a merkaturatu aurkeztu eta urte baten buruan, Irizar i6S berria abiarazi da. Teknologia altuko autokar berria bi altuera eta erdiko korridorea duten autokarrak behar dituzten bezeroen beharrak asetzera dator, Irizarreko autokar belaunaldi berriaren estilo eta teknologia berarekin. Irizar i6Sa autokar moldagarria da, eta ekipamendua egokitu egiten da ibilbide luze zein laburretarako eta zerbitzu diskrezionalarako.

Irizar i6S berriaren ezaugarri estetikoak i8 harrigarriaren antzekoak dira, eta markaren modelo berrien teknologia barneratzen du, Irizar pb modelo enblematikoa nabarmen gaituzteraino. Produktu

berriaren garapenaren oinarrian abangoardiako teknologia dago, nortasun propioa duen modelo baten kalitatea, sendotasuna eta fidagarritasuna bezalako kontzeptuen balioa agerian jartzeko.

Markaren gainerako ibilgailu guztiek bezala, Irizar i6 berriak ere R.66.02 segurtasun araudia betetzen du, eta sistemarik modernoek dituzten segurtasun aktiboari dagokionez, egonkortasuna bermatzeko eta aurreikusitako egoeretan arriskuak minimizatzeko.

I6 berriak Irizar autokarren maximari jarraitzen dio. Diseinuko autokarra da, sendoa, segurua, arina, isila eta fidagarria.



## Autobus HIBRIDOA, Taldearen soluzio teknologiko berria



**Irizar, maletategia duen II klaseko autobus hibridoa merkaturatu duen Europako lehen enpresa.**

Hiri handietan eta horien inguruetan garraioak egun dituen eta etorkizunean izango dituen beharrezko erantzun jasagarria eta ekofizientea emateko garatu du Irizarrek produktu gama hau. Ahalegin berritzaile horren emaitza izan da teknologia hibridoa duen II klaseko lehen aldiriko ibilgailua merkaturatzea, hiri barruko zein hiriarteko zerbitzuetarako, low entry eta maletategidun goiko solairuko bertsioetan. Irizar II klaseko autokar hibridoa merkaturatu duen Europako lehen enpresa da.

Irizarrek garatu duen hibridazio teknologia teknologia hibrido paraleloa da. Diesel propulsioko edo HVO (biodiesela) motorra eta motor elektrikoa konbinatzen ditu eta, beharren arabera, batera edo banaka trazionatzen dute, eta horrela efizientzia eta errendimendurik onena lortzen da.

Ingurumenaren gaineko hobekuntzez gain, gure autokar hibridoek %20 murrizten dute erregaiaren kontsumoa, eta horrek bezeroei gasoliotan urtean 6.000 l aurrezteko ahalbidetzen die. Datu horrek, era berean, Co igorpenei ere eragiten die, urteko 170.000 gr inguru murrizten baitira.

Autokar hibridoaren gaman daude Irizar i4h-a eta Irizar i3h low entry-a.



## USAn lur hartu

Irizarrek AEBn lur hartu zuen, eta bere estrategia aurkeztuz egin zuen, bertako INA Bus Sales banatzaile eskusiboaren eskutik, otsailean Atlantian egin zen UMA urteko azokan.

Helburua da operadoreekin elkar hartuta lan egitea, eta haiei produktu eta zerbitzurik onenak ematea, euren beharretara egokitu-tuta, merkatuan Premium autokarren marka moduan posizionatzeko.



## Espainiako 2016ko Urteko Autokarraren Saria eta Ibilgailu Industrial Ekologikoaren Saria

2016a bi sarirekin hasi genuen Irizar Taldean. Aurkeztu berri zegoen Irizar i8 autokarrak eta hiriko autobus %100 elektrikoak Espainiako 2016ko Urteko Autokarraren Saria eta Ibilgailu Industrial Ekologikoaren saria jaso zituzten.



# Irizar marka

Marka da gure aktibo nagusia eta ikono eztabaidaezina, gure bezeroen balioa maximizatzeko estrategian. Haien beharretara ondoen egokitutako produktu eta zerbitzu pertsonalizatuak eskaintzen dizkiegu eta konfiantza izan dezaketen proiektu sendo baten bermea. Gertutasunean eta harreman zuzenean oinarritutako estrategia dugu, hartara leialtasuna eta konfiantza lortzeko.

Bezeroei balio erantsi handia eskaintzen diegu, haien esku jartzen baititugu talde osoaren ezagutzarekin sortu eta garatutako produktuak, Premium sektorerara bideratuak eta segurtasun, fidagarritasun, iraunkortasun, teknologia, zerbitzu eta errentagarritasunean bereizten direnak. Diseinua eta berrikuntza Irizarren ADNaren zati dira.

Gure ildo estrategikoetan sartzen dira teknologia eta Irizar markako produktuen garapena, baita ahalmen teknologikoa eta industria dibertsifikazioa areagotzeko apustu argia ere, jada gure kulturaren eta nortasunaren zati baitira.

Gure markaren ordezkari gorenak Irizar markako autokar eta autobus integralak dira. Gaur egun autokar integralen gama osoa dago eskuragarri hala eskatzen duten bezeroentzat. Europan eta Estatu Batuetan hazteko dugun strategiaren zati nagusia da hau.

Irizar irudia zaintzen ere ahalegintzen gara, bai gure ekoizpen plantetan bai gainerako instalazioetan, eta, horri lotuta, nabarmenak dira showroomak, autokarrak entregatzeko eraikinak eta beste batzuk.

Esfortzu handiak egiten ditugu gure markaren berri emateko, azoketan eta produktu berrien, katalogo korporatiboen eta produktuen katalogoen aurkezpenetan, aurkezpen korporatiboetan, eta Taldearen web orrietan, esaterako, gure irudiaren alderdi guztiak hobetuz.





Tecnología Grupo Irizar

## Abangoardiako soluzio eta teknologia

Irizar Taldeak lehen modelo integrala aurkeztu zuenetik, Taldea teknologiaren alde ari da dudarik gabe, mugikortasunaren eremuan hartuta dugun konpromisoa indartuta.

Gaur egun harro esan dezakegu karrozeriagintzako enpresa bat izatetik produktu eta soluzio teknologikoen gama zabala eskaintzen duen enpresa bat izatera igaro garela, gure eskaintzan autobus %100 elektrikoak sartuta, baita teknologia hibridokoak ere, hiri barruan eta hiri artean zerbitzuak ematen dituzten II klaseko autokarrentzat, ohiko autobusez eta autokarrez aparte. Hori horrela, beraz, bidaiariarentzako garraio publikoko segmentu guztiei erantzun diezaiekegu, bai garraio diskrezionalan bai garraio publikoan, hiri barruan eta hiri artean ibiltzeko zein ibilbide luzeak egiteko, eta mugikortasun iraunkorraren sektorean liderrak izan gaitezke.

Hauk dira Irizar markari gaur egun denera iristen lagundu dioten mugarrak: Sektoreko erreferente bat, produktuetan segurtasuna, iraunkortasuna, errentagarritasuna, fidagarritasuna eta kalitatea lehenesten dituen, zeina 2009an hasi, eta ondoren, 2014an Irizar i2e elektrikoak bat-batean kaleratuta, 2015ean Irizar i8a jendaurrean aurkeztuta, 2016an Irizar i6 berriak, Irizar i4 eta i3 hibridoak eta 18 metroko artikulatuaren lehen prototipoa merkaturatuta aurrera jarraitzen duen, gaur egun autobus eta autokarren belaualdi berri eta oso bat eskaintzeko moduan egonda.

Irizar markako autokarrek, Europar garatu ondoren, Espainian, Portugalen, Italian, Mexikon eta AEBn bidea egiteari ekin diote.

### Irizar zerbitzua: zerbitzu pertsonalizatua izatetik haratago.

Abangoardiako soluzio eta teknologiez gain, zeinak frogatuta eta kontratatua dauden, bezeroei zerbitzu pertsonalizatuak eskaintzen dizkiegu, kudeaketa elektronikoa integrala, eta Irizar konektibitatea. Finean, giltza eskura erako soluzioak, eta behar guztietarako solaskide bakar bat izatearen onura.

turen sistemak. Horiek guztiak Taldearen teknologiarekin diseinatu eta fabrikatu dira %100, Irizarren zerbitzuaren berme eta kalitatearekin.

Gure produktuaren eskaintzan daude autobus autonomoak, artikulatuak edo bioartikulatuak, aukerako kargarekin, baita hiriei zerbitzua emateko beste ibilgailu elektriko batzuk ere.

### Irizarren autobus elektrikoen familia haiz egin da 18 m-ko autobus artikulatuarekin

Taldearen lehen BRTa (Bus Rapid Transit) proba fasean dago iraungarritasunari dagokionez, seriean fabrikatzen hasi aurretik. 2017an hasiko da merkaturatzen.

### Elektromugikortasuneko lehen kontratu handia

Euskal Kostaldea-Aturri Hirigunearekin sinatutako elektromugikortasuneko lehen kontratu handia nabarmentzen da Frantzian.

Kontratua Irizar i2e 18 autobus artikulatu egitean datza, %100 elektrikoak, 18,73 metro luze (BRT). Horrez gainera, karga estazioak egingo dira linea bakoitzaren bukaeran azkar kargatzeko azpiegituren bidez, eta kotxetegiarentzako karga estazio motelagoak.

### Enpresentzako Ingurumen Sari Nazionala

Europako Ingurumen Sari Nazionala ataleko Epaimahaiak Irizarri eman dio enpresentzako Ingurumen Sari Nazionala produktu-zerbitzu kategorian. Koordinazioaz Nekazaritza, Elikadura eta Ingurumen Ministerioa arduratu da Biodiversidad Fundazioaren bidez. Sari horri esker, Irizar Espainiako ordezkaria izango da Europako finalisten arteko lehian.

Errekonozimendu honek nabarmendu egiten ditu Irizarrek ingurumen eta elektromugikortasun arloetan egindako urratsak. Zehazki, Irizar i2e hiriko autobus %100 elektrikoaren garapen eta fabrikazioa nabarmentzen ditu, hirietako autobusen energia eraginkortasuna eta autonomia hobetzen baititu.

### Irizar i2e modeloko sei autobus Frantziako lehen linea %100 elektrikoaren inaugurazioan

Régie des Transports de Marseilleren (RTM) eskutik, joan den ekainaren 6an, Marseillan Frantziako lehen linea %100 elektrikoaren inauguratu zen.

Sei Irizar i2e-ak Marseillako 82. Linea enblematikoan hasi ziren zerbitzua ematen, Canebière eta Euromed lotzen dituen linean, eta ibilbidean zehar MPMko egoitza eta Métropole-ena, Portu zaharra, MuCEM eta Euroméditerranée negozio auzo berria zeharkatzen ditu.

Sei autobus Irizar i2e horiek konfigurazio estandarra dute, RT-Mko beste ibilgailu guztiek bezalaxe. Zoru baxu jarraitua dute, bi ate bikoitz eta arranja elektrikoak erdiko atean. Barruan 77 pertsonarentzako tokia dute, 27 eserita, mugikortasun urriko 1 eta 51 zutik. So-Nickel 16 bateria dituzte.

## Irizar e-mobility sortu da, Irizar Taldearen enpresa berria

Taldeko enpresa guztien ezagutza eta esperientzia batuta Irizar e-mobility sortu da. Bere jarduerak da elektromugikortasuneko soluzio integralak eskaintzea hirietarako, bai ibilgailuei bai beraien osagai eta sistema nagusiei dagokienez.

Enpresa berria Adunan kokatu da (Gipuzkoa), eta aurtengo maiatzean ekin dio jarduerari. Plantak 18.000 m<sup>2</sup>-ko azalera estalia du, 37.000 m<sup>2</sup>-ko lursail batean.

2020ra arte guztira aurreikusitako inbertsioa, aktibo finkoetan zein I+G programetan, 75 milioi euroan kalkulatzen da.

Horrekin Irizar Taldean prest gaude hiriei eta herritarrei mugikortasun sistema osatuak eskaintzeko, bai autobus %100 elektrikoak, bai karga, trakzio eta energia biltegiatzeko beharrezko azpiegi-





# Erantzukizun Sozial Korporatiboa

## Gizartea eraldatzen lagunduz

Mendea bete duen enpresa garen heinean, beti etorkizunari begira pentsatu dugu eta pentsatzen jarraitzen dugu, gure ahaleginak Lehiakortasun Iraunkorerrantz bideratuz (ekonomikoa, soziala eta ingurumenekoa).

Urte asko daramagu iraunkortasunaren alde lanean, baina, zalantzarik gabe, urratsik handiena 2011. urtean egin genuen, elektromugikortasunaren negozio arlo berria sortu genuenean: Taldearen oraina markatzen ari da, eta etorkizunaren zati bat ere markatuko du.

Erabaki hartatik bost urte igarota, Irizar e-mobility enpresa berria osatu dugu, eta jada prest gaude hirietako garraio sistemen eraldaketaren parte izateko, izan ere, hirietako gaur egungo aire eta zarata kutsadurak galarazi egiten du herritarrek bizitza kalitate egokia izatea. Erabakiak herritarren bizitza kalitatea hobetzen laguntzen du, inguruneak jasangarriago bihurtzen baititu eta, ondorioz, beraien bizitza kalitatea hobetzen.



### Herritarrei ematen zaizkien onura nagusiak dira:

- Hirigunean funtzionamenduan diharduten bitartean berotegi efektuko gasen zuzeneko igorpena desagertzen da, baita NOx bezalako substantzia toxikoa eta partikulena ere, eta horrek hiri ingurune osasungarriagoa eta iraunkorra izaten laguntzen du. Zuzeneko %0 igorpen hiri ingurunean.
- Karbono aztarna oso txikia uzten du, 8,45 gr CO<sup>2</sup> eq/km.p (egindako kilometroak pertsonako) %86 karbono aztarna gutxiago diesel autobus konbentzionalen aldean. Konbustioko ohiko autobus batekin alderatuz gero 800 tona CO<sup>2</sup> isurtzea saihesten da autobusaren bizitza zikloan zehar.



- Errekuntza motorren zarata murrizten da, kanpora igortzen duen soinua nulua da oinezkoentzat (OBA), bai geldialdian bai abiaraztean; ohiko errektuntzako autobus batek, berriz, 68 dBA-ko zarata igortzen du batez beste. Zirkulazioan, errodadura zaratak antzekoak direnez, Irizar i2e-aren soinuen igorpena %20 murrizten da.
- i2e-ren trakzio sistema elektrikoak %70 inguruko efizientzia energetikoa du, eta diesel autobus konbentzionalak, berriz, %30ekoa. Beraz, ibilbide bera egiteko energiaren erdia kontsumitu behar du.

### Gainera, azken urtean garatutako egitasmerik garrantzitsuenen artean nabarmentzen ditugu:

- **Enplegua sortzea.** Azken bi urteotan ia 200 lagun gehiago gara Irizar, S.Coop.en, heren bat goi mailako lizentziatuak, gure ahalmen teknologikoa eta I+Gkoa areagotzeko; horrek esan nahi du lantaldea %20 hazi dela modu egonkorrean. Dagoeneko ia 800 lagun gara enpresa matrizean.
- **Talentua erakartzea.** Kualifikazio altuko pertsonak jarraitzen dute Irizarren sartzen gure I+G programak gauzatzeko, bai autokar integraltan bai elektromugikortasun negozio lerro berrian.
- **Hausnarketa estrategikoan parte hartzea.** Barne komunikaziorako ohiko foroez gain, hausnarketa estrategikorako prozesua gehitu daiteke; Irizarren lantalde guztiak ordezkatzeko zuztuzten lagunek egin zuten, bai zuzeneko langileei dagokienez bai zeharkakoei dagokienez. Analisi

honen prozesua hainbat lan bileraren bitartez egin zen. Lehen fase batean 80 pertsonak hartu zuten parte guztira; pertsona horiek Zuzendaritza Taldekoak, Kontseilu Errektorekoak eta langile zuzenak eta zeharkakoak ziren, eta Irizarren jarduerari eragiten dioten kanpoko eztabaidagaiak aztertu zituzten, hala nola egoera makroekonomikoa eta sektorearen, merkatuaren eta lehiakideen analisia. Lehen analisi horretako ideietatik harantzago, hainbat gogoeta egin ziren Irizarren barne egoeraz eta AMIAz (Ahuleziak, Mehatxuak, Indarguneak eta Aukerak), eta, azkenean, gogoeta horietatik ondorio orokorrak atera eta Irizarren pertsona guztiei helarazi zitzaizkien, prozesuan parte hartzeko aukera ere eman zitzaizkien; izan ere, iradokizunak eta proposamenak egiteko aukera eman zitzaizen, eta jasotako guztia Irizarren lehiarako posizioa hobetzeko ekintzetan gorputzu zen.

- Inguruko ikastetxeekin eta unibertsitateekin lankidetzan aritzen gara. Gainera, autokarrek izan ditzaketen istripuetan esku hartzerakoan zerbitzu publikoetako profesionalak eta larrialdietakoek autokarren inguruan duten ezagutza handitzeko ekintzak egiten ditugu.
- Gure hurbileko inguruneke hezkuntza, kultura eta tradizioen arloko jarduerak babestea.
- **Kirola babestea**, dedikazioa, motibazioa, esfortzua eta talde lana bezalako balioak transmititzeko bide egoki gisa.
- Nazioarteko lankidetzan **20 GK Erekin** garatutako proiektuen bitartez. Kolektibo ahulenen heziketan, mantentze lanetan, azpiegiturretan eta arreta ematen laguntzen jarraitzen dugu.
- Lankidetzan dugu herrian zein lurraldean diharduten irabazi asmorik gabeko **40 elkarterekin**, hainbat proiektutan, horien artean nabarmentzen direlarik Caritas, Elikagaien Bankua, Gurutze Gorria.